

## erakusketa

Atarrabiako Besta Jira lehiaketako  
iazko argazkiak, kultur etxean

Atarrabiako Udalaren Besta Jira VII. Lehiaketako argazki hautatuen erakusketa kultur etxean izanen da ikusgai otsailaren 7a arte. Udalak urtero antolatzen du lehiaketa. Iaz Mikel Cepeda argazkilariak irabazi zuen; Iñaki Bergara izan zen bigarren. Erakusketa astelehenetik ortziratera bisitatzen ahal da, 17:00etatik 21:00etara.




EGUNKARIA

## argitalpena

Beterri-Aiztondoko iazko gertakariak  
bildu ditu 'Aurri' aldizkariak

Beterri-Aiztondoko *Aurri* hamaboskariak iazko gertakariak bildu dituen urtekaria argitaratu du. 74 orrialdeko argitalpen ederra da, txukuna. Eskualdeko gertakari nagusiak bildu dituzte, hilabetez hilabete, eta herriz herri. Albiste bakoitzak bere argazkia du. Eta, gainera, eskualdean jaiotakoen, ezkontutakoen eta hildakoen zerrenda badakar.



Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.

Untzaga plazan.

**GASTEIZ. 'Putá vida'** liburuaren aurkezpena. Gaur, 11:00etan, Casa del Libro liburu dendan. Fermin Gofñi liburuaren egilearen eskutik.

**HERNANI. Ipuin kontaketa.**

Gaur, 17:30 (3-4 urteko haurrendako) eta 18:00etan (5-7 urtekoendako), liburutegian. Lur Kortaren eskutik.

**KANBO. Ipuin kontaketa.** Gaur, 16:00etan (6-8 urteko haurrendako) eta 16:45ean (8-10 urtekoendako), mediatekan. Xan Errotabeherek emana.

## ikastaroak

**BAIONA. Euskal Herriko zuzenbidea.** Maite Lafourcade irakaslearen eskutik. Otsailaren 4an hasita, asteartero, 26 orduz. Eusko Ikaskuntzak antolatua. Informazioa eta izen ematea, 0559529299 telefonoan.

**IRUÑEA. Zirku-antzerki eskola.** Mira antzokian, otsailaren 3tik aurrera. Informazioa eta izen ematea, 948-152395 telefonoan.

## erakusketak

**ATARRABIA. Besta Jira Argazki Lehiaketako argazki hautatuen erakusketa.** Kultur etxean egonen da otsailaren 7a arte.

**BAIONA. 'Ugatza, lumaren kondaira'.** Otsailaren 8a bitartean, Mattin megadendan. Organbidexka Col Libre elkarteak eskainita.

**BARAKALDO. 'Aingeru bat errautsetan'.** Adrian Tylerren argazkiak udalaren erakusketa aretoan izanen dira otsailaren 11 arte.

**BILBO. Maite Martinez de Arenaza eta Yunta artisten margolanak.** Otsailaren 18a arte, Aritza galerian.

**'H.E.D.B'.** Luis Candaudapen azken bost urteko margolanak Windsor Kulturgintza galerian izanen dira otsailaren 28a arte.

**Angeles Santosen margolanak.** BBK erakusketa aretoan (Gran Via, 32) izanen dira martxoaren 2a arte.

**'Aloria eta erromatarkuntza Arabako Kantaurialdeko haranetan'.** Erakusketa Euskal Museoa izanen da urria bukatu arte.

**BURLATA. 'Marruecos, Alto Atalas: valles, pueblos y gentes'.** Javier Garretaren argazki

## musika

Pansequito. Gaur, Donostiako Antzoki Zaharrean (21:00etan).

## Pansequito, erraietako flamenko kantaria

Erredakzioa | DONOSTIA

Pansequito flamenko kantariak kontzertua emanen du gaur Donostiako Antzoki Zaharrean, 21:00etan. Pansequitok, Camaron de la Isolarekin eta Enrique Moreterekin batera, Espainiako *cante jondo*-aren eraberritu zuen.

Pansequito konpasaren eta esate flamenkoaren maisu dugu. Hagitz ahots flamenkoa du, ijito oihartzun osokoa, sakona, erraietatik ateratzen zaiona.

Donostia Kulturaren eskutik etorri da Pansequito Donostiako Antzoki Zaharrean. Era berean etorriko dira Chano Lobato (otsailak 13), Jose Menese (25) eta La Macanita (27).

## Manolo Caracolekin hasi zen

Pansequito —Jose Cortes Jimenez du benetako izena— La Linea de la Concepcion hirian jaio zen (Cadiz, Espainia), 1946an. Oso gazte hasi zen arte flamenkoan, eta Malagako tau-



EGUNKARIA  
Jose Cortes Jimenez, Pansequito.

len gainean kantatzen ari zelarik, Manolo Caracol kantariak kontratatu zuen, Madrilgo Los Canasteros lokalera. Madrilgo urte luzez ibili zen.

Gero, 1971n, Malagara itzuli zen, Taberna Gitana lokalean kantatzen. 1974an, Kordoban, Arte Flamenkoko Espainiako Lehiaketan, «sormen» ataleko saria eman zioten. Gerora, Espainiako toki anitzetan kantatu du. Kordobako sari haren inguruan izan zen ika-mikarrik. Juan de la Plata flamenkologoaren hitzetan, sari emate hura «polemiko» izan zen, baina, gerora, ikusi da Pansequitok «aski merezia» zuela. «Hain zuzen ere, soinu ezberdina izateagatik eta flamenkoari aire berritzailea emateagatik eman baitzioten saria».

Pansequitok diskografia zabala du. Bere diskoen artean nabarmentzekoak dira *A mi bahia*, *Suenan las campanas*, *El cante flamenco de Pansequito* eta *Como los gitanos eramos*.

erakusketa. Otsailaren 18a arte, Joaquin Azkarateko kultur aretoan.

**DONOSTIA. 'Nere txalupatik'.** Mikel Rikondoren argazkiak Aquariumean izanen dira apirilaren 27a arte.

**EIBAR. Jabier Villarrealen margolanak.** Portalea kultur etxean, otsailaren 16a arte.

**Juan Sagastizabalen margolanak.** Erakusketa gaur zabalduko dute, 19:00etan, Portalean. Han izanen da otsailaren 23a arte.

**GASTEIZ. 'El decalogo'.** Brenan Duarteren argazki erakusketa. Arabako Artxibo Historikoan, otsailaren 16a arte.

**HERNANI. Luisilloren egur erakusketa.** Andragoto kultur elkartearen, otsailaren 28a arte.

**IRUÑEA. 'Montañas con vida'.**

Goyo Huesoren argazki erakusketa Maisonnave hoteleko Iruña fotogalerian egonen da otsailaren 5a arte.

**'La bicicleta en el mundo'.** Gonzalo Etxeberriaren eta Luis Diegoren argazki erakusketa Zabaldin egonen da ikusgai otsailaren 11 arte.

**KANBO. 'Euskararen hatsa'.** Mediatekan, otsailaren 8a arte.

**SOPUERTA. 'Etxeko gaztagintza eta guringintza'.** Erakusketa Enkarterrietako museoa izanen da martxoaren 10 arte.

**TOLOSA. 'Sexualitate'.** Argazki erakusketa. Aranburu jauregian, martxoaren 1a arte.

**ZARAUTZ. Carl-Heims Chargesheimer alemaniarren argazkiak.** Photomuseumean izanen dira otsailaren 7a arte.

**ZIZUR NAGUSIA. Angel Arberren argazkiak, Iñaki Lazkozen margolanak eta Marijose Rekalderen eskulturak.** Hiru artisten lanak kultur etxean egonen dira otsailaren 9a arte.

## lehiaketak

**ARANTZA. Herriak eta Hizkuntzak literatur lehiaketa.** Lehiaketaren gaia «herriak eta hizkuntzak» da. Genero guztiak onartuko dira: olerkia, bertso-paperak, ipuina eta saiakera. Lanak euskarazkoak, jatorrizkoak eta argitaragabeak izanen dira. Lanak emateko epea 2003ko martxoaren 29an akituko da. Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, 948-634125

telefonora deitu.  
**AZKOITIA. Martxoak 8rako kartel lehiaketa.** Gaia eta estiloa libre da. Bi kolore erabili behar dira Neurria: A3. Ieloari garrantzi handia emanen dio epaimahaiak. Saria: 150 euro. Kartelak otsailaren 21a baino lehen bidali behar zaizkio Urola Kostako Emakume Taldeari (139 posta kutxa, 20720 Azkoitia).

**BASAURI. Ganorabako komiki lehiaketa.** Gaia libre da, baina pertsonai guztiak jatorrizkoak eta argitaratugabeak izan behar dute, autoreak berak sortutakoak. Lan bakoitzak A4 neurriko lau orri izanen ditu gehienez. Lanak zuri-beltzetan edota koloretan izaten ahal dira, euskaraz edo gaztelaniaz. Lanak kultur etxean eman behar dira martxoaren 31 baino lehen.

**BEASAIN. Neguko Bertso-paper Lehiaketa.** Partehartzaileek nahi adina bertso sorta bidali ditzakete lehiaketara. 18 urtetik beheitikoez gutxienez bost bertso eginen dituzte, eta gehienez, zortzi; 18 urtetik goitikoez gutxienez zortzi bertso eginen dituzte, eta gehienez, hamabi. Bertsoak gai eta doinu librean jarriko dira. Lanak otsailaren 20a baino lehen eman behar dira Arrano Kultur Elkartearen (Kale Nagusia, 12; 20200 Beasain).

**ERRENTERIA. Maitasun Eskutitzen III. Lehiaketa.** 14 eta 30 urte bitarteko gazteek har dezakete parte. Eskutitzak emateko epea otsailaren 7an bukatuko da. Lehiaketako oinarriak [www.gaztelokalak.eps.cc](http://www.gaztelokalak.eps.cc) webgunean eskuratzen ahal dira.